

# FUNTSEZKO ELKARTEAK

---

## 1. GARRAIOA: ESCUDERO

Ikasle gazteak garenez, gure produktuen ekoizpena Espainiako lurraldeetara mugatzea erabaki dugu. Hortaz, garraioa ere Espainiatik zehar garraiatzea eta gure biltegitik gertu egoitzak izatea funtsezkoa da. Horregatik, gure garraio-bide-enpresa **Escudero** izango da. Escudero taldeak gure ekoizkinak garraiatzeko furgonetak zein kamioiak erabiliko ditu eta Madril-Bilbo konexioa erabiliko du, **“Maintool”**-en lantegitik produktuak gure biltegiara garraiatu ahal izateko. Gidariek 6 orduko bidaia egin behar dutenez, ez diegu eguneko mantenimendua ordaindu behar eta beste bezeroen produktuak garraiatzeko ere aprobetxatuko dute guztiz errentagarria eginez gure eskaera. Hilero behin egingo dute bidaia eta lehenengo urtean eskaera-kopurua txikia izango denez, garraioa ere txikia izango da, prezioa gure egoerara egokitzen (gure enpresa errentagarria egiten den bitartean).

## 2. EKOIZPENA: MAINTOOL + EHU-KO UNIBERTSITATEA

Ekoizleen elkarte funtsezkoa da gure eskumuturrak eta poltsak egin ahal izateko. Kontratatu ditugun ekoizleak hurrengoak dira: **Maintool** eta **EHU-ko Ingenieritza Elektronikoa, Automatikoa eta Industrialak ikasten duten ikasleak**. Garrantzitsua da gure bi produktuek ezaugarri desberdinak dituztela ezagutzea.

Alde batetik, poltsak intelijenteak dira, beraz ez dira diseinuzko poltsak bezala egiten... material bereziak dituzte: plastikoa, zinc aleazioa, brontzea, aluminioa, altzairu herdoilgaitza, titanioa eta zilarra. Kanpotik ikusten den ehunaz gain (aurreko materialaz eginda), barrutik daukan geruzak RFID mekanismoa euki behar du, honek poltsak duen mugimendu guztiak erregistratzen dituelako (kokapena, kremaieraren itxiera, kanpo-bateria eta ateratako elementuen erregistroa). Beste aldetik, eskumuturrek uhalen materialaz gain (larrua, zilarra eta urrez bainatutako zilarra), barrutik doan mikroteknologia adituek egin beharrekoa da; besteak beste, norabide orotako antena bat behar dute (erradiazioa, abiadura, bluetooth-a, GPS-a eta memoria biltzen duena). EHU-ko ikasleei dagokionez, gure poltsen **oihalaren ekoizleak** izango dira. Akordio eskusiboa bat izango da gradu honen azken kurtsoko 10 ikaslerik hoberenen, beraien irakaslearen eta gure artean. Ekoizpen-prozesu hau ikasle bakoitzaren erregistroaren barne joango da eta beraien TFG-ren %35-a balioko du; akordioa guztiz probetxuzkoa izateko. Beraien obligazioen artean, oihalaren **teknologia-metodoa burutu** behar izango dute, **materialak EHU-k eskainita** izanda. Akordio hau urte bakar batekoa izango da **oihalak behar duen mekanismoa baino ez dutelako ekoiztiko**. Behin eginda, beraien **irakasleak aztertu eta zuzenduko** du eta lankidetzat amaitutzat emango da.

Eskumuturrek eta poltsek beharrezko dituzten **baldintzak betetzen duen enpresa *Maintool*** da. Enpresa hau hasi berria da Espainian eta **teknologian aditua**. Madrilen kokatzen denez, Euskal Herrira garraiatu behar diren produktuak ekoizteko behar den **baimena** ziurtatzen digutenean, ekoizten hasiko dira. Gazteak garenez, enpresa errentagarria den arte itxaron behar dugu eskaintza handiak egiteko; horregatik, lehenengo urtean hilero 40 eskumutur ekoiztiko dizkigute, eta behin gure biltegian daudenean ordaindu beharrekoa emango diegu (hau da, ordainketa hilero). Uhalek eta **teknologiak behar duten materiala eskuratzea, zein produzitzeko beharrezkoak diren makinaren mantentzea ekoizleen esku egongo da, guk eskainiko diegun gauza bakarra garraioa** izango da.

### **3. DISEINUA**

Eskumuturren diseinua **Nati Royo** enpresak egingo du, **EHU-ko sorkuntzako eta diseinuko ikasleen laguntzarekin**, horrela ikasleei **ikasten ari diren horretan lan egitea zer den esperimendatzeko aukera** eman diezaikegu, hau da, **esperientzia**. Ikasle hauek guk emango dizkiegu dirua guri lan egiteagatik. EHU-ko ikasleek diseinua egiten dutenean. Nati Royo enpresarekin kontaktatuko dugu eta beraiei diseinuak pasatuko dizkiegu. Nati Royo enpresak egiten duen eskumuturren diseinua bi motatakoa izan daitezke: diseinu **kargatua** edo **leuna**. Kargatuta daudenak uhalak larruzkoak, urrezkoak, zilarrezkoa etab. izan ditzakete. Gainera, detalle batzuk eraman ahal dituzte hala nola, harri bitxi txikiak, perlak, brillanteak etb. Diseinu sinpleak ere egongo dira, minimaltasuna bilatzen dutenentzat. **Diseinua teknikoki berrikustez** gain (koloreak, marrazkiak, etab.), **merkatuaren gustuak** kontuan hartuko ditu (unisexa, maskulinoa, femeninoa), eta **eskumuturrekoak doigarriak** izango dira, erosle potentzialak taila desberdinak izaten ohi baitituzte. Azkenik, **materialen kostuaren optimizazioa** ere kontuan hartuko du enpresak (zer material erabili eta non erosi).

**Poltsen diseinuak EHU-ko sorkuntzako eta diseinuko ikasleek** egingo dituzte, **Parfois** enpresaren ikuskapenarekin. Horrela, ikasleek ikasi bitartean lan hori ofizio gisa zer den esperimendatu ahal izango dute. Laguntzeak TFG-ren %20a izango da, akordioa errentagarria izan dadin. **Parfois** enpresa arduratuko da **diseinua errematatzeaz**, eta lau poltsa motaren kolekzioak sortuko ditu: bandolera txikia, tamaina handia, eskukoa eta motxila.

### **4. SARE SOZIALAK eta WEB ORRIALDEA**

Funtsezko betebeharra dela komunikazio eta harremanetarako puntuak bezeroekin modu zuzenenak eta hoberanak izateko.

Jakinda gure enpresaren zatirik handiena sareko erosketan eta salmentan oinarritzen dela, bezeroen segurtasuna bermatzea ezinbestekoa da guretzat. Beraz, **Imagar Solution Company** enpresarekin lan egitea erabaki dugu, gure enpresaren funtzionamenduan parte hartzeko. Enpresa honek **Informazioaren Teknologiek in lotutako zerbitzu eta irtenbideen hornitzaileak** dira. Web diseinua, online marketina, software garapena, ordenagailuen aholkularitza, web hostinga edo sistemen mantentze-lanak bezalako zerbitzuak bideratzen dituzte.

Gure kasuan, Imagar enpresak eskainitako zerbitzu guztien artean, hurrengo bi kontratatuko ditugu, hain zuzen ere:

- **Sistema Zerbitzuak – Azpiegitura teknologikoak (IT).**
- **Erabiltzaileen arreta- CAU.**

Sare sozialei dagokienez, bere antolaketaren zatirik handiena geuk kudeatzeaz arduratuko gara, oso ondo dakigula zer gertatzen den horietan, eta badakigu zein motatako bideoak eta argazkiak funtzionatzen dituzten publizitateari begira. Publizitate gehiena honako sare sozial hauetan egongo da: Instagram, twitter eta Youtube. Marketing digitaleko aholkularitzara dedikatzen den enpresa bat kontratatuko dugu, **Feeling Media**. Hauek Marketing Digitalaren adar desberdinak modu espezializatuan estaltzen laguntzen digute, batez ere engagementean oinarritzen dira.

## **5. BILTEGIA/ALOKAIRUA**

Merkataritza-lokal bat alokatzeko, dokumentu batzuk beharko ditugu, hala nola identifikazio pertsonala edo enpresarena, diru-sarreraren edo finantza-egoeren egiaztagiria, merkataritza-erreferentziak eta, kasu batzuetan, negozio-plana. Jabea edo higiezinaren agentea izan ohi dira merkataritza-lokalak alokatzen dituztenak; gure kasuan jabea izanik. Gure negozioarentzat leku zabala bilatu dugu, lan egin ahal izateko eta biltegiaren erraztasuna izateko. Gure baldintzak bete zituen tokia topatu dugu azkenean: <https://www.idealista.com/inmueble/101823762/>

Alde batetik, bulego-partea daukagu, eta denbora gehienez lanean arituko gara hor: sare sozialak eta webs-ak eramateaz, eskaerak kontrolatu, prestatu eta biltegitratzeaz, elkarrekin hitz egiteaz... arduratuko gara. Bulegoan ere, jasotzen ditugun eskaerak kudeatzeaz arduratuko gara, eta horrek funtsezko hainbat zeregin eskatzen ditu. Enkarguen harreratik hasi eta horiek prestatu, apaindu eta balizko bulegoraino, prozesuaren urrats bakoitzaz arduratzen gara. Horrek esan nahi du eskaera bakoitza zehaztasunez betetzen delaz ziurtatzen garela; xehetasunak zainduz eta artikuluak behar bezala prestatuta eta apainduta daudela ohartuz, bidaltzeko edo entregatzeko prest izateko. Bilera horiei esker, fabrikazio-prozesua gainbegiratu ahal izango dugu, kalitate-estandar handiak bermatuz, eta, horrez gain, komunikazioa sustatu, ideiak partekatu eta batera berritu ahal izango ditugu.